

Egun on eta ongi etorri,

Gaur, Saran, Euskal Herriko Idazleen Biltzar kari, omentzen dugu “Hatsa” elkartearen aitatzat jotzen dugun Auxtin Zamora.

Auxtin Zamora, senpertarra dugu, 1943ko apirilaren 17an sortua. Aita Lapurtarra zuen, ama Nafartarra, Zugarramurdikoa. Zortzi haur ukan zituzten, bost neska eta hiru mutiko, Auxtin premua delarik.

Aita-amek Uztaritzeko Seminario ttipian ezarri zuten, eta han egon zen, hamazazpi urtetan batxilergoa pasa arte. Auxtinek, gero, beste biderik hartu zuen: Angèle Albistur-ekin ezkondua da eta seme-alabak badituzte: Panpi eta Beronika.

Familiako xehetasun premiatsuen ondotik, aipa dezagun orain Biltzar Saria, eta erran dezakegu, duda-muda izpirik gabe, Auxtin Zamorak bi aldiz merezitua duela, lehenik olerkigintzan bereziki egin duen lanarentzat, baita “Hatsa” elkartearen baitan eraman dituen hanbat eta hanbat ekimenentzat.

Argitaratu dituen **liburuetan** kausitzen ditugu :

- « Ezin errana » (1986, Maiatz)
- « Hatsaren bustia » (1988, Maiatz)
- « Haizea hostoetan » (2002, Hatsa)
- « Trapuetan haizea » (2002, Hatsa)
- « Zernahi izan eta ere » (2009, Hatsa)

**Ikerketa lanak** ere eraman ditu Auxtin Zamorak :

« Sara etxez etxe » (2010), Sarako etxe guzien datu geografikoak eta izenak ;

« Etxalar etxez etxe » (2010), Etxalarko etxe guzien datu geografikoak eta izenak ;

« Senpertar ingumak 1914-1918 » (2014), Lehen Mundu Gerran hildako, zauritutako nahiz desagertutako senpertarrak ;

« Senpere etxez etxe » (2016an), Senpereko etxe gehienen lur gaineko datu geografikoak eta izenak.

**Bideo poetiko** andana bat egin du, argazkiak eta poesia lerroak uztartuz, besteak beste:

“Laztozko ihesguneak” (2008an),

“Barneko buirbuilak” (2009an), baita “Hatsaren olerki bustiak” (urtero, 2010tik 2016a arte).

Funtsean, Euskal Kultur Erakundeak bideo poetiko horien hedapena lagundu zuen, hala nola Biarritzeko Mediatekan eta Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean programatuz.

Erran behar dut ere, Euskal Kultur Erakundeak “Ibilbide kulturalak” akulatzen zituelarik, partaidetza bat ukan zuela Baionako Bernat Etxepare lizeoarekin, eta olerkigintza saila Auxtin Zamorak kudeatu zuela bizpahiru urtez segidan.

Hatsaren aita! Auxtin Zamoraren bigarren merezimendu handia: beste olerkarien zerbitzuko jarri dela Hatsa elkarte sortuz. Eta elkarte horren lana laburbilduz bi alor handi ikusten ditugu: urtero “Hatsaren poesia” izeneko liburuaren argitaratzea, kasik berrehun olerkariren poesiak biduz, baita ere “Hatsa eguna”-ren antolatzea, aldiro olerkari eta olerkizale andana ederra elkartuz. Haien artean, behin baino gehiagotan gertatu zela, berriki ixildu zaigun Joxan Artze, txori kantarietan kantaririk kantariena zena! Bai segur, Hatsa elkarteari esker, euskal olerkariek oren zoragarriak iragan dituzte Senpere Oxtikenean edota Larraldean! Eta bihar, eta etzi, hala izan bedi!

Gaurko omendua, erlea bezala, beti lanean ari zaigu, burrunba handirik egin gabe, apalki, egiazko ofizialearen pare, pazientiatsu bezain kementsu! Jadanik aipatutako bi ekitaldi nagusi horiekin batera, antolatzen ditu ere erakusketak, mintzaldiak, ibilaldiak, naturarekin zinez bat eginez. Ahantzi gabe, Senpereko berriak luzaz eman dituela euskal irratietan, eta bistan dena, Maiatz elkartearen kide leiala dela!

Ez da harritzekoa beraz beste artista batzuek ere Zamora ohoratu baitute, hala nola Beñat Achiary kantariak eta Christiane Giraud eskultoreak, batak poema bat xaramelatuz, besteak harrian zizelkatuz.

Bururatzeko, uste dut Senpere Aitziburuko Auxtinen unibertsoa ezin hobeki laburbiltzen duela gure Iratzeder maisu hilezinak:

**“ Gizonak MAITATZEN balaki**

**gozoki lezake aurki**

**zoin den BIZIA OLERKI ! ”**

**Pantxoa Etchegoin**

Saran

2018 apirilaren 2an

Euskal Kultur Erakundearen izenean goresmenak bihurtzen dizkiot Jean-Claude Larronde egungo beste omenduari ere, Euskal Herriko historia alorrean lan paregabea egin baitu ! Milesker beraz zuri, Jean-Claude Larronde.